

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko martxoaren 15ean hartutako erabakiaren laburpena: 2024ko ekitaldian Vitoria-Gasteizko udalerrian 45 urtetik gorakoentzat enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdia onesten da horren bidez

BDNS (Identif.): 753313.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/753313>).

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

Lehena. Onuradunak

Diruz lagun daitezkeen jarduerak Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean garatzen dituzten enpresa edo entitateak, edozein delarik ere haien forma juridikoa, baldin eta Vitoria-Gasteizen erroldatutako pertsonen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen badituzte, lanaldi osoan edo lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarrean gutxienez, 2023ko irailaren 16tik hasita eta gehienez eskabideak aurkezteko epea bukatu arte (2024ko irailaren 15a).

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizen kontratazio mugagabea eta enplegu-egonkortasuna sustatzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zk.), eta 2023ko uztailaren 29an jarri zen indarrean. Ordenantzaaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2024ko martxoaren 15ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko ekitaldian Vitoria-Gasteizko udalerrian 45 urtetik gorakoentzat enplegu egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko oinarri arautzaileak.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza deialdi honek 600.000,00 euroko zuzkidura du, 2024rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.2411.489.67 partidaren kontura Enplegua egonkortzeko laguntzak. Enpresa edo entitate bakoitzeko bi eskabide baino ez dira onartuko. Dirulaguntza lanaldi osoko kontratu

mugagabe bihurtzen den aldi baterako kontratuaren urteko soldata gordinaren ehuneko 30ekoa izango da gehienez, kontratazio bakoitzeko 9.000,00 euroko mugarekin; lanaldi partzialekoa bada, parte proportzionala.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2024ko irailaren 15era arte.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 15a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ